



**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) KLAUSULA
ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN
PLEGUA, PROZEDURA IREKIAZ ESLEITZEKO HONAKO
KONTRATU HAU: 2012 ETA 2013 EKITALDIETARAKO EEE
TALDEAREN ETA BERE PARTAIDETZAKO SOZIJETATEEN
ASEGURUEN BITARTEKOTZA**

ESPEDIENTE ZENB.:

ESG/11/001

PROZEDURA IREKIA

Bilbon, 2011ko martxoaren 11n
José Ignacio Hormaeche Azumendi jn.
EEEko kontseilari-zuzendari nagusia



KARATULA

ADJUDIKATZEKO ERA: Prozedura irekia.

ESPEDIENTE ZENB.: ESG/11/001

A. KONTRATUAREN XEDEA

2012 eta 2013 ekitaldietarako bitartekotza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzea, EEErentzako eta bere partaidetzako sozietateentzako aseguru polizak kontratatu eta sinatzeko; baita hartzaileari, asegurutunari eta onuradunari eman behar zaion geroko laguntza ematea ere.

B. ORGANO KONTRATATZAILEA

EEE, honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo..

- o I.F.Z.: Q-5150001E
- o Pertsona arduraduna, maila teknikoan: Iker Alaña Zorrilla jn.
- o Telefonoa/faxa: 94-403.56.32 / 94-403.56.98
- o Posta elektronikoa: ialana@eve.es
- o Kontratatzailearen profila: www.eve.es

C. ARTEKARI-SARIEN GEHIENeko/GUTXIENeko EHUNEKOA ETA AURREIKUSITAKO KONTRATUTAREN BALIOA

Artekari-sarien gehieneko/gutxieneko ehunekoa:

Aseguru mota	Gutxieneko artekari-saria	Gehieneko artekari-saria
Erantzukizun zibil orokorra	%6	%11
Administratzaileentzako eta zuzendarientzako erantzukizuna (D&O)	%6	%11
Arrisku orotarako. Kalte materialak	%6	%11
Taldeko langileen bizi eta istripuak	%6	%11
Ibilgailuen flota	%4	%8

Aurreikusitako kontratuaren balioa: 101.200 euro (BEZ gabe).

D. IZAPIDEA

Ohikoa.

E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA

Eskaintzak edo proposamenak 2011ko martxoaren 28ko 12:00ak arte jasoko dira.

F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA

Proposamenak Energiaren Euskal Erakundeko Zerbitzu Orokorrak Sailera bidaliko dira, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua. 48011 Bilbo.

G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez dagokio.

H. BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dagokio.



I. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio.

J. ZERBITZUA EMATEKO EPEA

Epea: Kontratua sinatzen denetik 2013ko abenduaren 31 arte.

K. BERMEEI DAGOKIEN EPEA

Ez dagokio.

L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Ez dagokio.

M. ALDAGAIEN ONARPENA

Ez dagokio.

N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA

Plegu honen 8.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena erabakitzeke erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak
B gutun-azala. Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak		
1	Aseguru Planaren diseinua	20
2	Laguntza Plana	15
3	Beste hobekuntza batzuk	5
C gutun-azala. Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak		
4	Proposamen ekonomikoa	60
GUZTIRA		100

o **Proposamen ekonomikoa (%) – Gehienez 60 puntu, 100 punturen artean**

Aseguru mota		Haztatutako puntuak
a	Erantzukizun zibil orokorra	12 puntu
b	Administratzaileentzako eta zuzendarientzako erantzukizuna (D&O)	2 puntu
c	Arrisku orotarako. Kalte materialak	36 puntu
d	Taldeko langileen bizi eta istripuak	8 puntu
e	Ibilgailuen flota	2 puntu
GUZTIRA		60 puntu

Aseguru mota bakoitzak (a, b, c, d eta e) artekari-sarien gehieneko eta gutxieneko ehunekoa du, eta lizitatzaileek horien artean egin beharko dute eskaintza (**C ATALA**). Nolanahi ere, mota bakoitza ez da lotea; beraz, enpresa esleipendun bakarra izango da.



Aseguru mota bakoitzerako ezarritako gehieneko puntuazioa eskaintza ekonomikoenari esleituko zaio, gainerako eskaintzak honako formula honen bidez balioetsiko dira:

$$PO = (CMn / CO) \times MP$$

PO = Lortu beharreko puntuak

CMn = Eskaintzaileek aurkeztutako gutxieneko artekari-saria

CO = Balioesten den lizitatzailak aurkeztutako artekari-saria

MP = Aseguru motaren gehieneko puntuak

P. ZIGORTZEA

Plegu honetan aurreikusten direnak.

Q. LUZAPENA

Alde biek elkar hartuta, eta kontratua amaitu aurretik, kontratua luza daiteke, legeak ezartzen duen gehieneko epea arte.

R. LANAK ZATIKA JASOTZEA

Ez dagokio.

S. PREZIOA ETA PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratu honek ez dio berehalako gasturik ekarriko EEERI; izan ere, esleipendunak, gordailuzain eta komitente gisa arituz, eta indarrean dagoen legeria aintzat hartuta, aseguru-kontratuak sinatuko diren aseguru erakundeei ordainduko zaien sari edo primen bidez kobratuko du. Hori horrela, esleipena egin ondorengo epeei dagokien prezioa kontratatuko diren aseguru polizen sari garbiei lotuta egongo da, epe bakoitzean esleipendunaren laguntzarekin.

Prezioa ordaintzeko era esleipendunaren eta aseguru erakundearen artean adostuko da.

T. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

U. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete Foru Aldundietan.



Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzaren sailak Lana eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzen orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua sailak Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBE sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzen aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Horrela, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeak aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzen orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa.



OINARRIZKO BALDINTZAK

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.1. Kontratuaren araubide juridikoa:

- (i) Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan eta bere karatulan zehaztutakoa, baita Zehaztapen Teknikoen Txostenean jasotzen dena ere. Horrekin batera, Energiaren Euskal Erakundeak (“**EEE**”) onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan adierazitakoa (“**KABI**”) eta Kontratatzaillearen Eskakizuna atalean argitaratua (www.eve.es) eta esleipendunarekin sinatuko den kontratuan jasoko diren baldintzekin eta itunekin bat etorriz.
- (ii) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera (“**SPKL**”). Plegu honen klausuletan adierazten diren gaiak dagokienez, soil-soilik.
 - Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (aurrerantzean “**HAKLEO**”), aurreko puntuan azaldutako gaiak dagokienez.
 - Zuzenbide Pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren interpretazio, ondorio, betetze eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

1.2. Lanak egiten arituko diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzaileek bete beharko dituzte indarrean dagoen lan eta gizarte legeria.

1.3. Kontratuaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako dokumentuak eta eranskinak edo itundutakoa gauzatzean zerikusia izan dezakeen Administrazioak xedatutako arau, plegu eta aginduen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista edo enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua Plegu honen Karatularen “**A**” **ATALEAN** adierazia da.

Hori guztia baldintza teknikoaren arabera, Zehaztapen Teknikoen Txostenean adierazten dena. Plegu honetan jasoko dena, 5. eranskina, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako proiektua kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

3. LIZITAZIOAREN GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

- a) Kontratu honen lanak gauzatzeko, lizitatzailleek aurkeztu beharreko gutxieneko eta gehieneko artekari sariak Plegu honen karatulako “**C**” **ATALEAN** adierazitakoa izango da.
- b) Aurreikusitako kontratuaren prezioa Plegu honen karatulako “**C**” **ATALEAN** adierazitakoa izango da, SPKLen 76. artikuluan xedatutakoa betez, BEZa gabe.
- c) Kontratuaren prezioa era honetan kalkulatu da: kontratatuko diren aseguru polizen sari garbien zenbatekoari esleipendunak eskainiko dion artekari-sariaren aplikaziotik aterako da, epe bakoitzean esleipendunaren laguntzarekin.
- d) Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, EEEK ez ditu ordainduko, 5. eranskinean ageri den Zehaztapen Teknikoen Txostenaren arabera.

4. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen “**I**” **ATALEAN** zehazten dena beteko da.



5. GAUZATZEKO EPEA

- 5.1. Gauzatze epea Plegu honen Karatularen “**J**” **ATALEAN** adierazitakoa izango da. Ezarritako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira edo EEEk lan programan onartuko dituenak izango dira.
- 5.2. Zehaztapen Teknikoen Txostenean azaltzen edo baimentzen baldin bada, lanak egiteko epeak murriztea edo zatikako epeak zein jarduteko lehentasunak ezarri gero, bete beharrekoak izango dira, hala eskaini edo ezartzen bada, hurrenez hurren.
- 5.3. Karatularen “**Q**” **ATALEAN** hala aurreikusten baldin bada, kontratua amaitutakoan, alde guztien oniritziarekin, kontratua luza daiteke. Luzatzekotan, epea ez litzateke karatularen “**J**” **ATALEAN** aurreikusitakoa baino luzeagoa izango.

6. ADJUDIKATZEKO ERA

- 6.1 EEEk kontratatzeko dituen barne-jarraibideak (KABI) edo arauak aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan.

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

- (i) lehen fasean (“*Eskaintzen aurkezpena*”), interesatutako lizitatuzaileek (A), (B) eta (C) gutun-azalak aurkeztuko dituzte.
- (ii) bigarren fasean (“*Kontratatzen hautaketa*”) lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintzen aztertu ondoren, EEEk kontratua formalizatzeko lizitatuzailea hautatuko du.
- (iii) hirugarren fasean (“*Formalizazioa*”), EEEk eta hautatutako lizitatuzaileak kontratua sinatuko dute.

- 6.2 EEEk eta kontratistak men egingo diote informazioaren konfidentzialtasuna babesteko obligazioari, KABIren 6.(d) atalean ezarritako moduan.

- 6.3 Kontratazio-organoa “**B**” **ATALEAN** azaldutakoa izango da.

- 6.4 Kontratazio-organoari laguntzeko, kontratazio-mahaia edo organo baliokideren bat era daiteke, eta hauxe arduratuko da parte-hartze eskaerak kalifikatu eta eskaintzak baloratzeaz.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

- 7.1 Proposamenak aurkezteko epea 2011ko martxoaren 28ko 12:00ak arte izango da.
- 7.2 Proposamenak honako helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48011 Bilbo.
- 7.3 Lizitatuzaileak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.
- 7.4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute. Halaber, ezaugarri hori



kredita dezakete zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratueterako kontsultabatzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako **"N" ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.

- 7.5 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 48. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkatzeko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, EEEren aurrean. Enpresari horiek guztiek aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiek izenpetu behar dute adierazitako agiria.

Parte hartzeko zerbitzu-enpresa izatea eskatuko balitz, ezinbestekoa izango da, sailkapenak metatu ahal izateko (HAKLEOko 52. artikulua), aldi baterako elkarteko enpresa guztiek izatea beren esku zerbitzu-enpresen sailkapena.

- 7.6 Lizitatuzaileen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZa izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.
- 7.7 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, EEE erakundeko kontratatzailearen profileen lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.
- 7.8 Lizitatuzaileek ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako **"M" ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Lizitatuzaileek ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu, baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarra izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko 129.3 artikulua arautzen duena beteko da.

Adierazitakoa betetzekoa izango bada ere, lizitatuzaileek aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratu-xede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.

- 7.9 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.



- 7.10 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, EEErekin kontratatzeke baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.
- 7.11 Izaera konfidentziala. Beharrezkotzat jotzen baldin bada, enpresa lizitatzailerak, sekretu teknikoak edo komertzialak direla eta, izaera konfidentzialtzat hartzen dituen informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, VII. eranskinean agertzen den ereduaren arabera, eta hori egiteko arrazoiak azalduko ditu. Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoak ez du izaera hori.
- 7.12 Lehiaketatik kanpo geratuko dira, EEEK behar bezala arrazoituta eta gero, honako egoera honetan leudekeen proposamenak:
- Proposamenak epez kanpo aurkeztea.
 - Eskatutako gaitasun profesional edo enpresariala ez aurkeztea.
 - Plegu honetan eskatzen den kaudimen ekonomiko, finantzario, teknika edo profesionala ez aurkeztea.
 - Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo aldi baterako beste enpresa lizitatzailerak batzuekin batera.
 - Plegu honetan edo zehaztapen teknikoen pleguan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
 - SPKLeak eskatzen dituen baldintzak ez betetzea.

8 PROPOSAMENEN EDUKIA

- 8.1 Lizitatzailerak hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan, datu hauek adieraziko dituzte: lizitatzaileraren izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteko, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteko, baldintza-orri honetako karatularen **"A" ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.
- 8.2 Hiru gutun-azalak helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 1. solairua, 48011 BILBAO. Baldintza-orri honetako karatularen **"E" ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean.
- "Gaiari" dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:
- **"A" gutun-azala:** "Lizitazio-espedientearen zenbakia: dokumentazio administratiboa"
 - **"B" gutun-azala:** "Lizitazio-espedientearen zenbakia: iritzi bidez ebaluatu ahal diren irizpideak"
 - **"C" gutun-azala:** "Lizitazio-espedientearen zenbakia: formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak"
- 8.3 Baldintza-orri honetako 8.5. atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu "A" gutun-azalak, "B" gutun-azalak 8.6. atalean zehaztutakoa eta "C" gutun-azalak 8.7. atalean jasotakoa.
- 8.4 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileak onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta EEEK uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.



8.5 “A” gutun-azala: Dokumentazio administratiboa

- EEEko sarrera-erregistroan aurkeztuko da dokumentazio hori, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azalean, espediente-zenbakia adieraziko da, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako "A" **ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, “Dokumentazio administratiboa” dela iragarritz.

- Dokumentazio administratiboaren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatzailleek eta Estatuko lizitatzailleen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenean nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz, VI. eranskinarekin batera.

- Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistroa agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte “A” gutun-azalean:
 - a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emailea, eta beste pertsonaren baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonak, berariazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.
 - b. Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskitura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskitura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legediak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskitura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.
 - c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatzeko adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.
 - d. Ardurapeko adierazpena, ahalmentutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49.1. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Horretarako, Plegu honetako 2. eranskina bete eta sinatuko da.
Ardurapeko adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.
 - e. VI. eranskina behar bezala betetzea.

- Baldintza-orriko karatulako "G" **ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du. Hautatutako enpresariak kontratua formalizatzen duenean, amaitu egingo da behin-behineko bermearen indarraldia, eta itzuli egingo zaie hura hautatuak izan ez diren lizitatzailleei.

- Lizitatzaillearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala kreditatzeko, kaudimen hori dutela egiaztatzen duten honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:



- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

1. Lizitatzailerearen ahalmen ekonomikoaz finantza-erakundearen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.
2. Urteko kontuak, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko obligatorik ez duten enpresariak, bestalde, kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legeztatuta.
3. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, eta zehazki, kontratu honen helburua denari lotutako jardueren inguruko negozio bolumena, eskuragarri duen azken ekitaldiari dagokionez.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala:

1. Azken hiru (3) urtean kontratu honen antzeko lan eta proiektu burutuak deskribapena; batez ere, energia alorreko enpresei, energia berriztagarrien alorrean bereziki, eta sektore publikoko enpresei egindako lanak; baita horien aseguru motak, aseguraturako enpresak eta sektoreak eta sektore horietan kudeatutako sarien edo primen bolumena ere.
2. Esleipen honen lanak egiteko lan-taldearen deskribapena, alor horretan langileen gaitasuna eta esperientzia azalduz.

Behar bezala arrazoitutako kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta EEEK egokitzat jotzen badu egiaztapen-bide hori.

- Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea

Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoez balia daiteke, erakunde horiekin izango dituen harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontrastek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behineko esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.
- b) Azpikontratatzeako asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.
- c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatuko dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
- d) Etorkizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilararen bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratu nahi baditu, SPKLen 210.2 artikulua a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.



Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzerritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala:

- 1. *Gaitasuna*

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztea.
- Gainerako enpresa atzerritarrek,
 - Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrek edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-esparruan.
 - Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrak emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak Merkataritzako Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.
 - Enpresak Espainian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

- 2. *Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala*

Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzerritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpresei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri honetako Karatularen "**N**" **ATALEAN** xedatutako moduan.

- Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, SPKLeko 56.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.

Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarria izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.

- Enpresen langilerian ehuneko bikoia edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoa, berariaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori betetzen dela, baldin eta enpresek SPKLeko seigarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.



8.6 “B” gutun-azala: Formula bidez ebaluatu ezin diren irizpideak.

Lizitatuzaileak honako dokumentazio hau aurkeztuko du:

- a) Aseguru Planaren diseinua. Horren barruan honako datu hauek zehaztasunean emango du: aseguru mota bakoitzaren azterketa eta ebaluazioa, estaldurari lotutako aseguru sistemak eta teknikak, baldintzak, frankiziak, arriskua hartuko duten konpainiak hautatzeko irizpideak, baldintza teknikoaren pleguak prestatzeko aholkularitza, polizen eta konpainien balioespena, aseguru-kontratuen esleipena, eta abar.
- b) Laguntza Plana. Argi eta garbi zehaztuko dira atala hauek: irismena, eta hartzaile, aseguratu eta onuradunen eskura jartzen diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak
- c) Beste hobekuntza batzuk. Baldintza-orri honetan jasotzen ez badira ere, kontratuaren helburuarekin zerikusia duten eta nabarmen hobetzen duten hobekuntzak izango dira.

Nolanahi ere, Zehaztapen Teknikoen Txostenean azaltzen den dokumentazio guztia aurkeztu behar da, plegu honen karatulako “O” Atalean jasotzen diren esleitzeko irizpideak balioesteko behar den dokumentazioa, hain zuzen ere.

B gutun-azalak ez du edukiko, inola ere, lizitatuzaileak eskaintzen dituen baldintza ekonomikoak edo prezioa. Eskakizun hori ez betetzeak eskaintza bazter uztea ekarriko du.

Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.

8.7 “C” gutun-azala: Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak.

Baldintza-orri honetako 1. eranskinean jasotako proposamen-ereduari jarraituko zaio (prezioak ezingo du gainditu aurrekontuari ezarri zaion gehienezko zenbatekoa), eta proiektuak adierazitakoa beteko da. Aparteko kontu-sail batean jasoko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen marraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da.

Lizitatuzaileek ezingo dute, SPKLeko 129. eta 131. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzen dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako Karatularen “M” **ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago aurkeztuz gero, bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitatuzaileak.

9 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

9.1 Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.

9.2 SPKLen 144.1 artikulua xedatutakoa ez da aplikagarria izango, izaera armonizatua duten kontratuei lotutako proposamenen irekieraz.



9.3 Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitatzailleak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Faxe erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatzailleak eskaintzan adierazitako faxaren zenbakia.

9.4 Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesionala baldintza-orri honetan adierazitako moduan kreditatu ez duten lizitatzailleak, bai eta, kasu horretan badaude, zerbitzu-enpresen sailkapena kreditatu ez dutenak ere.

10 ESKAINTZA HAUTATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

10.1 Esleipenari ekin aurretik, EEEk eskubidea izango du kontratua bertan behera uzteko, espedientean behar bezala justifikatuta, edo hautatzeko prozedurari ez ekitea, kontratua prestatzeko araudietan edota esleipena bideratzeko prozeduran hauste edo akatsen bat gertatuz gero.

EEEk kontratua deuseztatu edo bertan behera utziz gero, lizitatzaillei 150 euroko kantitatea emango die.

10.2 Lehiaketa esleitu gabe uzten ez badu, esleipena abantailatsuena den proposamenari egiteko aukera izango du EEEk, eta, horretarako, ez du, ezinbestean, haren balio ekonomikoari erreparatu behar.

10.3 Baldintza-orriaren karatulako **“O” ATALEAN** adierazitako oinarrizko balorazio-irizpideak baliatuko dira eskaintzak baloratzeko.

10.4 Irizpide gehigarri gisa, baldin eta horrela ezarri bada, eta proposamen ekonomikoei dagokienez, positibotzat joko dira lanak egiteko eta epeak betetzeko bermeak aurkezten badira.

10.5 Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arazoizko baliora gehien gerturatzeko diren eskaintzak hautatzea.

10.6 Baja arinei dagokienez, HAKLEOko 85. artikulua eta SPKLeko 136. eta 174.1.a artikuluek xedatutakoa beteko da.

10.7 Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratuko da: kaudimen tekniko kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko biko edo handiagoa duena.

11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA

11.1 Eskaintzak baloratu eta enpresaburu esleipenduna hautatzeko gehienezko epea hilabetekoa izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, erabakia jakinarazi ez bada, lizitatzailleek, egoki irizten badute, beren proposamenak erretiratzeko asmoa dutela jakinaraz dezakete.



11.2 EEErentzat eskaintza egokiena aurkeztuko duen enpresaburua aukeratu ondoren, eta kontratua sinatu aurretik, zenbait agiri aurkeztu behar dizkio EEERI hautatutako enpresaburuak. Horretarako, hamar (10) egun balioduneko epea izango du gehienez, agiri horiek eskatzen zaizkion unetik aurrera. Hauek dira agiriok:

a) Zerga-betebeharrak

- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazio Estatuko Agentziak emana, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.
- Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiek emandakoa, administrazioarekin zerga-betebeharrei lotutako zorrik ez duela egiaztatzen duena, edo hertsadura bidea erabiltzeko ez dagokien zergadunen kasuan, borondatezko epean ordaindu ez diren zorren inguruan.

b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak

Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzaren Lurralde Altxortegiak emandakoa, Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

Jarduera ekonomikoen gaineko zergako alta-agiria edo zerga horretako azken errezihoa aurkeztu behar du, eta, horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztuko du (4. ERANSKINA) zerga horretan bajarik ez duela hartu azalduz. Aurkeztu behar ez baldin badu, hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.

d) Aseguru enpresak egiaztatuta, aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 20. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.

e) Behin betiko bermea ezarri izanaren egiaztageria, karatulan "H" atalean hala erabaki baldin bada. SPKLen 84. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da bermearen ezarpena.

f) Beste dokumentu batzuk. Kontratatzeko gai den egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa, edo kontratua aurrera eramateko konprometitutako bitartekoak egiaztatzen dituzten dokumentuak.

EEEko sarrera-erregistroan aurkeztu behar dira agiri horiek guztiak. Aipatutako epean behar bezala aurkeztu ezean, lizitatzailleak eskaintza bazter utzi duela ulertuko da. Hori horrela, hurrengo lizitatzailleari eskatuko zaio dagokion dokumentazioa, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraiki.

11.3 EEEK bost (5) egun balioduneko epearen barruan esleituko du kontratua, dokumentazioa jasotzen den unetik kontatzen hasita. Esleipen hori justifikatu eta motibatu egingo da eta lizitatzaille guztiei haren berri emango zaie, jakinarazpen baten bidez (faxa/posta/posta elektronikoa) eta Kontratatzaillearen Profilean argitaratuz.

12 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

12.1 EEEK bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatzeko gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzekoa ere.



- 12.2 Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamabost (15) egun naturaleko epean egingo da.
- 12.3 Kontratuaren formalizazioaren bitartez, EEEK kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.
- 12.4 Kontratuak bere baitan bilduko ditu EEEK kontratatzeke dituen barne arauan jasotako aipamenak.
- 12.5 Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, EEEK behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak EEEri kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa izango da.
- 12.6 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.
- 12.7 Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako I.F.Z. ere aurkeztu beharko dute.
- 12.8 Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.

13 KONTRATUA GAUZATZEA

- a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.
- b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.
- c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita EEErentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.
- d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).
- e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da.
- f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigortuta dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.



- g) EEEk ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak alde aurretik baimendu ez duen ezein lan.

14 KONTRATUAREN ALDAKETA

- a) Ezustekoei eta egoera berriei aurre egin ahal izateko EEEk zerbitzu-kontratua aldatzeko gaitasuna izango du, baina aldaketa horrek ezin izango du hasierako kontratuaren ehuneko 20a gainditu. Kontratistak derrigorrean onartu behar ditu aldaketa horiek.

Aldaketek, kasu bakartuetan edo bere osotasunean ehuneko hori gaindituz gero, kontratistak kontratua eten dadin eskatzeko eskubidea du. Kontratuzko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarriz eta horiek negoziatuz.

- b) Kontratistak ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratuaren xedeari dagokionez, alde aurretik adostasunez egin ez bada, eta hala badagokio, kontratazio-organoak ezarritako aurrekontuaren gainean.

EEEren oniritzia edo baimena ez duten aldaketek erantzukizuna ekarriko diote kontratistari, eta horiek eragin ditzakete gastuak kontratistaren kontura joango dira.

15 KONTRATUAREN LUZAPENA

Baldintza-orri edo plegu honetako karatulan aurreikusten diren baldintzak betez luza daiteke kontratua.

Aurreikusitako luzapenak gertatuko balira, kontratuaren prezioa hasieran zehaztutakoa izango litzateke, baina, luzapeneko urte bakoitzean berraztertu egingo da eta urteari dagokion KPIren %85 aplikatuz. KPIa Estatistikako Institutu Nazionalak ezarritakoa izango da (SPKLen 78.3 art.).

16 PREZIOAREN ORDAINKETA

Plegu honetako karatulan azaltzen da nola egingo diren prezioaren ordainketak.

Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berriazko baimena jaso ezean, kontratistak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, EEEk kontratistari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

17 EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK

- a) Kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.

- b) Kontratista edozein epeetan berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango EEEk alde aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak EEEk ezarriko ditu automatikoki.

- c) Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, EEEk adostutako azken prezioaren %20ko zigorra ezar diezaioke.



Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten EEEk kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta EEEk kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

18 KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA

EEEk zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatze eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldian igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio. Zuzenketa horiek egiteko epea hamabost (15) egunekoa izango da gehienez ere.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, EEEk lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, EEEk jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

19 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

19.1 Lan arriskuen prebentzioa

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du.

19.2 Betebehar laboral eta sozialak

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak – halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higiena, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakiokeen lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero).



Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

f) Kontratua hau sinatzeagatik EEEk ez du inolako betebeharrak eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du EEEri erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketan arazoan aurrean.

g) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrak, bai eta kontratistak edo honen azpikontratistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta EEEri ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak. Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio EEEri. Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan.

h) EEEk hala eskatzen badio, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio. Aurkezten ez badio edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebeharrak bat ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, EEEk kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du.

i) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere EEEko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

j) Kontratatari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

k) Behar bezala justifikatuta ez dauden atzerapenak edo dokumentazioa ez aurkezteak ekarriko du kontratua ez betetzea, eta, beraz, EEEk bertan behera utz dezake kontratua.

19.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak

Kontratistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landareetan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratistak. Horretaz gain, EEEk eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

19.4 Hirugarrenen baimenak

EEEk bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketarak eta kudeaketa-lanak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratistak ordaindu beharko du.



20 ASEGURUAK

Kontratatistak honakoa seguru hauek eduki beharko ditu:

a) Erantzukizun zibil profesionalaren asegurua egingo du. Aseguru honek EEErentzat diharduten profesionalak (abokatu, ingeniari, ingeniari teknikoek...) beste bati eragin ahal dizkioten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du. Aseguru hori ospe handia duen aseguru enpresa batekin sinatu behar da, eta kontratuari dagokion kalte-ordain muga ez da 600.000 eurokoa baino txikiagoa izango.

1.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratatistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio EEEri, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, EEEren iritziz.

2.- Kontratatistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, EEEk aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontaktzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, EEEk eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, EEEk kontratatistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

3.- Aseguruaren inguruan kontratatistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontrastei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, EEEri eman beharko dizkio azalpenak.

4.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratatistak EEEri jakinaraziko dio. Era berean, EEEk hala eskatzen baldin badio, kontratatistak aseguruaren kontratuen kopia eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio. Kontratatistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

5.- Kontratatistaren kargura izango diren arrisku, betebeharrak eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, EEEren edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

6.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratatistak ordaindu beharko du.

21 EGINDAKO LANEN JABETZA ETA DATU PERTSONALEN ERABILERA. KONFIDENTZIALTASUNA

21.1 Egindako lanen jabetza

EEEren jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabetza industrial eta komertziala ere, EEEren esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe EEEk espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabetzari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.



Jabego intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek EEEren esku utziko dute aipatutako jabego intelektual edo industrialia.

Jabego intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak EEEri eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta aldeaz aurretiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daiteke eta.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitekeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela EEEren baimenik gabe. Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzekotan, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

21.2 Datu pertsonalen erabilera

Datu pertsonalen erabileratzat honako jarduera hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.

Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako araua hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiek in eraturako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistaratzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
 - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
 - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta



- programak behar bezala erabiltzeko.
- c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatuko ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeko aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzekeo egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.
6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, EEEk kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.

21.3 Konfidentzialtasuna

Kontratatistak konpromisoa hartzen du modu konfidentzian erabiltzeko halakotzat jotzen den informazio oro, eta plegu honetan azaltzen den xederako baino ez du erabiliko informazioa.

Esleipendunak kontratatutako zerbitzuei buruz ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekotzat edo konfidentzialtzat jotzen dira eta beraien identitate eta sekretua gorde behar ditu, eta EEEk eskatutako lanak egiteko erabiliko du informazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratatistak edo pertsonak ezin izango dute EEEk emandako informazioa zabaltzeko, aldatu edo beste bati eman, kontratua gauzatzeko informazioa den aldetik.

Kontratatistak konpromisoa hartzen du aipatu informazioa modu konfidentzian erabiltzeko, eta konfidentzialtasun eta sekretutasun horren berri emango die bere langileei, elkartuei edo kontratatistarekin harremanak dituen edonori, EEErekiko kontratu betebeharrak modu egokian gauzatzeko behar den informazioaz, hain zuzen ere.

Aldez aurretik EEEk baimena eman ezean, eman zaion edozein dokumentu ez du erreproduzitu ezta kopiatu ere kontratatistak (informazio konfidentziala izan dezakeena), zerbitzua emateko ezinbestekoa denean izan ezik.

Kontratutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, hala badagokio, kontratatistak dokumentuak eta kopiak itzuli egingo ditu, kontratuaren lanak amaitu eta gero, emango zaizkionak hala eskatzen badiu.

22 LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Kontratu hau ezin izango laga, ezta azpikontratatu ere.

23 HIZKUNTZA BALDINTZAK ZERBITZU KONTRATUETAN

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.



Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezzen, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

24 KONTRATUAREN ARDURADUNA

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, EEEK kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariatut aukeratzeko duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenez egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, kontratua honetan biltzen diren lanak egiteko, kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku laga ditzake hari dagozkion ahalmen eta eskubide batzuk edo guztiak.

25 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak plegu honetan, Kode Zibilean eta SPKLen 206 artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

- (i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, EEEK egokitzat joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, Esleipendunari EEEK eskatu eta bere horrextan gauzatutako lanak ordainduko litzazkioke soilik, arrazoi honengatik EEEri kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.
- (ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.

(iii) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarrizko baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, EEE baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta kontratu honen eta indarreko araudiaren arabera dagozkion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatuz edota lanak gauzatzen jarraituz, berez edo egokitzat jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, esleipendunaren kontura.



26 JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (SPKLen 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzeko eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroiei.



1. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:
Enpresaren bulegoen helbidea:
.....

Datu horiek Kontrataziorako Oinarrizko Baldintzetan agertzen den eran frogatu ostean, hauxe adierazten dut:

1. 2012 eta 2013 ekitaldietarako bitartekotza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzea, EEErentzako eta bere partaidetzako sozietateentzako aseguru polizak kontratatu eta sinatzeko, baita hartzaileari, asegurudunari eta onuradunari eman behar zaion geroko laguntza emateko kontratua esleitzeko antolatutako LEHIAKETAREN berri emateko EEEren Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen dut.
2. Baldintza Teknikoen Pleguak, Oinarrizko Baldintzenak eta gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dut.
3. Kontrataziorako Oinarrizko Baldintzen Pleguaren lehen klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ere ezagutzen ditut.
4. Horiekin ados nago eta borondatez, bere osotasunean eta aldaketarik gabe onartzen ditut 2. eta 3. ataletan adierazten diren legezko eta arauzko dokumentu eta testuak.
5. Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, honako artekari-sarien arabera:

Aseguru mota	Artekari-saria
Erantzukizun zibil orokorra	
Administratzaileentzako eta zuzendarientzako erantzukizuna (D&O)	
Arrisku orotarako. Kalte materialak	
Taldeko langileen bizi eta istripuak	
Ibilgailuen flota	

* Ezarritako gutxieneko artekari-sarien azpitik dauden eskaintzak ez dira balioetsiko.

[...]n, 2011ko [...]aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzzailearen izena]
Ahalordez



2. ERANSKINA

LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

ADIERAZTEN DUT: Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. eta 50. artikuluetan araututako kontratatzeke debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorritik, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

[...]n, 2011ko [...]aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]

Ahalordez



3. ERANSKINA BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “**Bankua**”) eta haren izenean eta ordezkarietan [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “**Sozietatea**”), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], [*Erakunde Kontratzailearen izena*] aurrean (aurrerantzean, “**Onuraduna**”), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “**Berमतutako zenbatekoa**”), [*kontratuaren izena idatzi*] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berriaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontaktzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Berमतutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoiak haurgatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berriaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin, 20[](e)ko []aren(e)an.

[Lekua eta eguna]
[Erakundearen izen soziala]
[Ahdun(ar)en sinadura]



4. ERANSKINA EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO AITORPENAREN EREDUA

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:
Enpresaren bulegoen helbidea:
.....

Nire erantzukizunpean, adierazten dut:

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

.....
.....
.....
.....
.....

[...]n, 2011ko [...]aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]
Ahalordez



5. ERANSKINA ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

Gaur egun EEE taldeak edo bere partaidetzako sozietateek kontratatuta dituzten aseguru-polizen laburpena ezagutu nahi duten lizitatzailleek, enpresa esleipendunak bitartekotza zerbitzuak eman behar dituen aseguru-polizak, hain zuzen ere, posta elektronikoz mezu bat bidali dezakete honako helbide honetara: ialana@eve.es

Esleipendunak uztailaren 17ko 26/2006 Legeak, aseguru-artekaritzaren inguruko lanei lotutako Aseguru eta Berraseguru Pribatuaren Bitartekotzaren jardura arautzen duenak, xedatzen eta eskatzen dituen zeregin eta jardura guztiak betetzeaz gain, kontratu honek eskatzen dituenak ere bete beharko ditu; funtsean, hauexek dira:

A) ASEGURU PLAN BATEN DISEINUA

1. Kontratua sinatzen den egunetik hilabeteko epean gehienez ere, "EEE TALDEAREN ETA BERE PARTAIDETZAKO SOZIETATEEN ASEGURUEZ TXOSTEN-DIAGNOSTIKOA" egin eta aurkeztu beharko da; bertan, gutxienez honako alderdi hauek azaldu eta jorratu behar dira:

- Gaur egun EEE taldeak eta bere partaidetzako sozietateek kontratatuta dituzten aseguruaren estaldurei buruzko diagnostikoa eta ebaluazioa: Horrekin batera, baldintzen gaineko iritzia ere azalduko da; ildo horretatik, aldatzea edota sinatzea komenigarria izango litzatekeen kontratu motaz eta bere baldintzez aholku emango da.

- EEE taldeak eta bere partaidetzako sozietateek aseguru premien gaineko ebaluazioa. Horretaz gain, orain eta etorkizunean izan litezkeen arriskuez, kontratatutako aseguruaren aldaketaz eta hobekuntzez ere iritzia emango da. Horrekin batera, honako aspektu hauek ere aztertu eta ebaluatuko dira:

- Kontratuen baldintzak (aldaketak, etorkizuneko kontratueterako hobekuntzak eta abar proposatuz).
- Bermearen, primaren eta estaldura handitzearen inguruan sar daitezkeen hobekuntzak.
- Proposatzen diren frankiziak.

- Merkatuaren egoeraren arabera, EEE taldearen eta bere partaidetzako sozietateen arriskuen estalduraren diseinu egokia egiteari begira, bitartekariak beharrezkotzat jotzen dituen beste aspektu batzuk.

2. EEE taldeak eta bere partaidetzako sozietateek kontratatutako dituzten aseguru-polizei lotutako sustapenaz, eskaintzaz eta harpidetza edo sinatzeaz behar besteko eta benetako informazioa ematea. Alde horretatik, sinatzea komeni den kontratuaren baldintzei buruzko informazioa ere eman beharko da. Horretaz gain, une bakoitzean izaten diren premietara ondoen egokitzen diren estaldurei buruz aholku ematea, betiere iritzi profesionalean oinarrituz, eta polizak eraginkorrak eta erabateko ondorioak izateko, haien eskakizunak lehiakorrak izateari erreparatuz.

3. Aseguru merkatuaren alternatiba guztien ikerketa eta azterketa etengabea, eta EEE taldeari eta bere partaidetzako sozietateei horien berri emanez. Alternatiba horiek ezagutarazteko, erraz eta arin ezagutarazi ere, taulak, koadroak, grafikoak eta abar erabiliko dira. Era berean, EEE taldeak eta bere partaidetzako sozietateek kontratatu beharko dituzten aseguru-polizez aseguru etxeek eskainiko dituzten estalduren,



zenbatekoen, frankizien, primen prezioen eta abarren azterketa konparatiboa egingo da.

4. Kontratuen baldintza tekniko eta ekonomikoetan hobekuntzak lortzeko xedez, arriskuen gaineko jarraipen eta azterketan espezializatutako teknikariek etengabeko aholkularitza lanak eskaintzea.

5. Behar denean, aseguru berrien kontratazioa proposatzea, EEE taldearen eta bere partaidetzako sozietateen premien eta arriskuen arabera.

6. Hala dagokionean, aseguru-polizak kontratatzeko baliagarriak izan daitezkeen Baldintza Teknikoen Pleguak apailatzeko aholku ematea. Horrekin batera, aseguruei lotutako kontratuen lehiaketetan, enpresa esleipendunak hautatzeko prozeduretan parte hartzea, aurkeztuko diren eskaintzei buruz txosten teknikoaren prestaketaren bitartez, esleitzeko ezarriko diren irizpideei jarraiki.

7. Kontratazioari edo aldaketari begira, artekariak proposatuko dituen poliza guztietarako, gutxienez hiru eskaintza ezberdin aurkeztu beharko ditu, EEE taldeak eta bere partaidetzako sozietateek horien artean aukeratu ahal izateko, beren interes eta premien arabera.

B) LAGUNTZA PLANA

1. Aseguru-kontratuak indarrean dauden bitartean, hartzaileak, aseguratuak eta onuradunak polizen klausulei buruz eska dezaketen edozein informazio ematea. Modu berean, kalte edo ezbehar gertatuz gero, laguntza eskaini, aholku eman eta jarraipena egin beharko du, hura argitu eta erabat konpondu arte. Eskatzen den informazioa edo argibidea idatziz eman beharko da, hala eskatuz gero, eta hamabost (15) egun naturaleko epearen barruan, kontsultaren konplexutasunak edo beste egoera berezi batzuek beste epe bat eskatu ezean.

2. Aseguruen kudeaketari buruzko informazioa bideratzeari begira, EEE taldearen eta bere partaidetzako sozietateen eskura pertsona bat edota lan talde espezializatu bat jartzea, EEE taldeak eta bere partaidetzako sozietateek dituzten premiekin bat etorritik.

3. Poliza bakoitzaren indarraldia amaitu baino hiru (3) hilabete lehenago, hurrengo urtean aseguratu beharreko arriskuen ebaluazio eta balioespen arrazoitua izango duen txosten tekniko bat aurkeztea, eta hala dagokionean, primen eguneratze ekonomikoa egiteko proposamena egitea, behar bezala justifikatuta.

4. Kontratututako aseguru-poliza guztien ezbehar-tasaren jarraipen informatikoa egitea, eta sei hilabetez behin, poliza bakoitzaren ezbehar-tasaren bilakaerari lotutako estatistika eta balioespen arrazoitua eta zehatza jasoko dituen txosten bat aurkeztea.

5. Aldian behin, txostenak eta dokumentuak (taulak eta grafikoak, kasu) prestatzea eta aurkeztea; bertan, aseguru planaren emaitzak eta egoera eguneratua azalduz. Era horretan, une bakoitzean eta poliza bakoitzari dagokionez, bideratzen edo izapidetzen ari diren ezbeharrak, kontsulta egunean haien egoera zein den, haien inguruan gauzatzen ari diren jarduerak eta beste datu interesgarri batzuk ezagutu ahal izango dira.

6. Ezbeharren inguruan aholku ematea, izapideak egitea eta bideratzea. Horien jarraipena egiteko eta aldian behingo estatistikak eskura izateko, baliabide informatiko egokiak izan beharko ditu.



7. Aseguru-kontratuak une bakoitzean aplikagarria izan dakieken lege eta araudira egokitzea.

8. Aldaketak gertatzen direnean, kapitalen eta aseguraturako ondasunen gaurkotzea proposatzea.

9. Kontratuaren helburua behar bezala garatu eta betetzeari begira, beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu profesional guztiak ematea; esate baterako, azalpenak emateko lan bileretan parte hartzea, aseguru motez eta haien ezaugarriez informazioa ematea, prestakuntza saioak antolatzea, etab.

10. Hala eskatzen denean, era guztietako aseguru gaien inguruko txostenak egitea eta aurkeztea hamabost (15) egun naturaleko gehieneko epean. Premiazkoa izanez gero epe hori hamar (10) egun naturalekoa izango da.

11. Aseguru-kontratu sinatu ondoren, aseguru hartzaileari, aseguratuari eta onuradunari laguntza eta aholku ematea. Laguntza horren barruan sartzen dira, besteak beste, aseguru erakundearekiko harremanetan parte hartzea eta ezbeharren zein bestelako gorabeheren ondorioz egin beharreko izapideak eta kudeaketa lanak egitea; asegurua indarraldia amaitu arte. Ildo horretatik, eta era orientagarrian, esleipendunak honako lan hauek egin beharko ditu:

- Aseguruen ordainagiriak jasotzea, haien berri ematea eta ordainketa egiteko izapideak bideratzea.
- EEE taldeko eta bere partaidetzako sozietateetako arduradunek egingo dituzten ezbeharren jakinarazpenak edo komunikatuak jasotzea eta aseguru erakundeari haien berri berehala ematea.
- Ezbeharra jasaten dutenen eta aseguru erakundearen aldetik, behar den informazio guztia lortzeaz arduratzea, eta horren inguruan egingo dituen kudeaketa lanen berri ematea EEE taldeko eta bere partaidetzako sozietateetako ordezkariari.
- Ezbeharri dagokion espedientea kontrolatzea eta kalte-ordainaren kobrantza kudeatzea.
- Honako informazio hau sartzea eta eguneratuta edukitzea: aseguru erakundeak zabalduko ezbeharren erreferentzia-zenbakia, ezbeharrik bideratzeaz edo izapidetzeaz arduratuko den pertsona, izapidetze fasearen nondik norakoa eta egindako kudeaketen inguruko informazioa, peritxostena egin ala ez egiteko komunikazioa, eta egitekotan, arduratuko diren perituen berri ematea. Ezbeharren jarraipena egiteko eta aldian behingo estatistikak eskura izateko, baliabide informatiko egokiak izan beharko ditu.
- Ibilgailuen bajei dagozkien itzulketak azkartzea (estornoak).
- Automobilien aseguruaren behin betiko polizak behar bezala aztertu eta helaraztea, alta berriak jakinarazten direnetik hogeita (20) eguneko epearen barruan.
- Aseguruaren polizak behar bezala aztertu eta helaraztea, indarrean sartzen direnetik hogeita hamar (30) eguneko epearen barruan.
- Aseguru-polizek ordaintzen duten ezbeharren kalte-ordainei dagokienez, aseguru konpainiek EEE taldearen eta bere partaidetzako sozietateen kontura kobratzen dituzten zenbatekoak eta kontzeptuak zehaztasunez eskuratzea.
- Aldian behin (sei hilabetez behin) txostenak egitea; bertan, sinatutako aseguru-kontratuak ordaintzen edo estaltzen ez duten ezbeharren kopurua, zenbatekoa eta arrazoiak azalduko dira.



12. Kasu berezietan, eta hala eskatzen zaionean, une bakoitzean kontratatutako frankiziaren ardurapeko ezbeharren txosten teknikoa edo peritazioa eta ebaluazioa egin beharko ditu bitartekari esleipendunak, eta haren argitan aterako diren ondorioen berri ematea EEE taldearen eta bere partaidetzako sozietateen arduradunei, hoguei (20) egun naturaleko gehieneko epearen barruan, ezbeharren ezaugarriengatik edo beste arrazoi batzuegatik beste epe bat ezarri ezean.

13. Aseguru konpainiek ordaintzen zaizkien primen zenbatekoen eguneratzea eskatuko balute, aseguru-artekaritzak txosten bat egingo luke. Txosten horretan, behar bezala justifikatu beharko dira eguneratze horren premia eta primaren zenbatekoaren gehikuntza. Horretarako, aseguruaren merkatuaren benetako egoerari buruzko datuak eta dokumentazioa (taulak, koadroak, grafikoak) aurkeztu beharko dira, urtean zehar polizak izandako bilakaera agertarazteko, beste urte batzuekiko datu konparatiboak ikusteko, izandako ezbeharren kopurua jakiteko eta ordaindutako kalte-ordainen zenbatekoa kuantifikatzeko, besteak beste. Horretaz gain, arrisku horiek beste konpainia batean aseguratzeko zer-nolako kostua ekarriko lukeen adierazi beharko litzateke. Azken finean, aseguru konpainiek eskatzen duten eguneratzearen edo aurrekontu igoeraren egokitasuna (edo, hala badagokio, ezegokitasuna) egiaztatu eta justifikatzeko behar den informazio eta dokumentazio guztia aurkeztu behar dute.

C) HOBKUNTZAK

Zerbitzua emateari begira, baldintzen pleguan ez dauden eta kontratuaren helburuarekin zerikusia duten beste hobekuntza batzuk eskaini beharko dituzte lizitatzaileek; kontratuaren xedea nabarmen hobetuko duten hobekuntzak, hain zuzen ere.



6. ERANSKINA
ENPRESA LIZITATZAILEAREN OINARRIZKO DATUAK

Enpresa lizitatzaillearen izena	
IFK / IFZ Jarduera nagusia	
Helbide soziala	Zentrala:
	Bulegoak EAEn:
Harremanetarako	Harremanetarako pertsona:
	Helbidea:
	Tel.:
	Faxa:
Langile-kopurua	e-mail:
	Guztira:
Negozio bolumena	EAEn:
	Guztira:
Akziodunen edo enpresa taldearen izena	EAEn:
Kudeaketa sistemen ziurtapena (ISO, UNE edo baliokideak)	



7. ERANSKINA
ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO
EREDUA (hautazkoa aurkeztea)

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:
Enpresaren bulegoen helbidea:

ADIERAZTEN DU

(*) zenbakidun kontratazio-espeditako (*gutun-azala zein den zehaztu*) gutun-azalean jasotako agirietatik, jarraian aipatzen diren informazioak eta eskaintzako alderdiak konfidentzialak direla, merkataritzako sekretuekin edo sekretu teknikoekin lotura izateagatik. Hauek dira, beraz, agiri konfidentzialak:

Adierazten du, baita ere, agiri horiek konfidentzialak direla ondoko arrazoi hauengatik:

(Lekua, eguna eta sinadura)

(*) Plegu honetako karatulan dagoen espeditate zenbakia idatzi.